



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko irailaren 21ean

70 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapituluak aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioei buruzko Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena. Emendakinak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa. Horren bidez, Iruñerriko bi FM lizentzien esleipena etetea eskatzen da, Fermín Ciáuriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- “José M^a Iribarren” ikastetxean D ereduko gela bat zabaltzeaz Parlamentuak hartutako erabakia betetzeko neurriei buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (6. or.).
- Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (7. or.).
- Bi urteko haurrak hartzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak egina (7. or.).
- Desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusitako diren alternatibei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (8. or.).

- Eugiko urtegia hustu eta gero antzeman den arrainen heriotzari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (9. or.).
- Buñuelgo “Santa Ana” ikastetxe publikoari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (10. or.).
- Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetzak akordioari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (11. or.).
- Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- Ega ibaian, Andosillan, izan den kutsadurari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- Robo eta Arga ibaietan, Gares aldean, izan den arrain hiltzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).
- Urantziako Udaleko dermioan Odrón ibaiaren ibilgua handitzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (15. or.).
- Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (17. or.).
- Errioxan, Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Beran, Ibardin eta Zia erreketan arrainak hiltzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Nagusientzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektuaren txostenean Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiak izan duen eskuhartzeari buruzko galdera, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andre-ak egina (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektu-

tuari emendakinak aurkezteko epea **1998ko urriaren 5eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapitulua aldatzen duena. Foru Dekretu Legegile horren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa, ordainarazpen parafiskal eta prezioei buruzko Foru Legearen testu artikuluduna onetsi zen

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Uztailaren 24ko 144/1987 Foru Dekretu Legegileko IX. Tituluko II. Kapitulua alda-

tzen duen Foru Lege proiektuari emendakinak aurkezteko epea **1998ko urriaren 5eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 155. artikulua aldatzeko Foru Lege pro-

posamenari emendakinak aurkezteko epea **1998ko urriaren 5eko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Iruñerrirako bi FM lizentzien esleipena etetea eskatzen da

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak hurrengo mozioa aurkeztu dute: "Mozioa. Horren bidez, Iruñerrirako bi FM lizentzien esleipena etetea eskatzen da". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako Mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin:

Duela egun gutxi irrati-lizentziak esleitu dira Komunitatean; Iruñerrian, zehazki, bi.

Gogoan edukiz irrati-entzuleen eskubideek beharrezko egiten dutela euskara adierazpide gisa erabiliko duten irrati-emisoreak existitzea, gure etsipen eta kezka agertzen ditugu, izan ere, berriro, UPN-PPren Gobernuak eman dituen lizentzietatik bat ere ez delako izan Nafarroako euskaldunen eskubideak betetzen direla ziurtatuko duen euskarazko irrati-emisore batentzat.

Eskura dugun informazioaren arabera, esleipena gutxienik ere arauz kanpokoa izan dela ondoriozta daiteke.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau egiten dugu:

- Iruñerrirako bi FM lizentzien esleipena eten dadila, administrazio-espeditentean detektaturiko irregulartasunak zuzendu bitartean.

Iruñean, 1998ko irailaren 12an

Foru Parlamentariak: Fermín Ciáurriz Gómez eta Begoña Errazti Esnal

F saila:
GALDERAK

**“José M^a Iribarren” ikastetxean D ereduko gela bat zabaltzeaz Parla-
mentuak hartutako erabakia betetzeko neurriei buruzko galdera**

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak “José M^a Iribarren” ikastetxean D ereduko gela bat zabaltzez Parlamentuak hartutako erabakia betetzeko neurriei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Parlamentari Talde Sozialistak, Biltzarreko Erregelamenduko 186. artikulua eta hurrengoek xedaturikoaren babesean, Parlamentuaren hurrengo Osoko Bilkuraren aurrean honako galdera hau aurkezten du, 188.1 artikuluari jarraituz, premiazko bidetik ahozko erantzuna eman dakion:

Hezkuntza Departamentua ez da oraindik gauza izan D ereduko ikasgela bat “José María Iri-

barren” ikastetxean ireki zedin premiazko Parla-
mentu honek hartu zuen erabakia betetzeko.

Departamentuak ez-betetze hori justifikatu du ikastetxe horren egoerari buruzko aipamenak egi-
nez, eta interesa duten familiei Parlamentuaren erabakia betetzeko eskaini dizkien alternatibek ez dute balio, familia horiek ez dituztelako onartu. Parlamentuaren erabaki hori ezin izango da betetzat jo harik eta Departamentuak D ereduko ikasgelak berori eskatzen duten familien nahia asetzen duen lokal batean funtzionatzea lortu arte.

Aurreko hori guztia dela-eta, Parlamentuaren erabakia betetzeko Gobernuak zer borondate duen balioetsi ahal izateko, honako hau galdetzen da, Osoko Bilkuraren aurrean ahozko erantzuna eman dakion:

Interesaturiko familien nahia betez “José María Iribarren” ikastetxean D ereduko ikasgela bat irekitzez Parlamentuak hartu zuen erabakia betetzeko zer neurri hartzea aurreikusi du Hezkuntza Departamentuak?

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Bozeramailea: Carlos Cristóbal García

Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Artxibo Nagusiko dokumentazio historikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamendua-
ren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Artxiboan gordeta dagoen garrantzizko dokumentazio historikoa du Nafarroak.

XX. mendeko teknologia berriek beraiekin eka-
rri dute bere garaian historiko bihurtuko den infor-

mazio mordo bat izatea paperaz besteko euskarrietan: zinea, telebista, bideoa, eta abar.

Horregatik, hurrengo galderari idatziz erantzutea eskatzen dut:

A. Gobernua biltzen eta artxibatzen ari ote den, edo hori egiteko asmoa duen, euskarri modernotan izan daitekeen garrantzizko informazioa Nafarroako dela gutxiko historiari buruz.

B. Horretarako planik egin ote den. Aipa bitez lortu beharreko informazioa, gordetzeko irizpideak eta higadura saihesteko aukeratu diren euskarriak.

C. Jarduketarik egin ote duen, edo egiteko asmorik duen, alor publikoaren menpeko entitateekin, Espainiako irrati-telebistarekin, konparazio-
ne, garrantzizko informazioaren kopiak lortzeko, izan ere, artxibo garrantzitsua baitute.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Bi urteko haurrak hartzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIES BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak bi urteko haurrak hartzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean agitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

M^a Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Hezkuntza Bozeramaileak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespe-

an, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza eta Kultura kontseilariak martxoaren 31ko 89/1998 Foru Agindua eman zuen, hezkuntzako itun berezi partzialen araubidea, Haur Hezkuntzako bigarren hezkuntza zikloan, 1998/99 ikasturtetik aitzina aplikatzeko arauak emateko.

Nafarroako lehen zikloko haur hezkuntza (0-3 urte), udalen eta Gizarte Ongizate Departamentuaren menpeko haur eskoletan ematen jarraitzen dute, funtsean. Hezkuntza Departamentuak ez du bere gain hartu oraindik haur hezkuntzako lehen zikloaren ezarpena, antolaketa-aldaketa handiak ikusten baititu beharrezko etapa hori bereganatu ahal izateko.

LOGSEK betebeharrak bereziak ezarri ditu hezkuntza-etapa honi arreta egiteko: haur hezkuntza

emateko irakasle espezialistak behar dira eta behar bezala kualifikaturiko beste lanbidedun batzuk, adin-tarte horrek arreta handia eskatzen baitu, orobat toki egokiak, begibistako arriskuak badirelako 0-3 urteko aldi horretan.

Matrikulatzeko aldiaren eta ikasturte hasieran, ohikoa da itunpeko ikastetxe pribatuak bi urteko-entzako ikasgela eskaintzea komunikabideen bitartez.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1) Haur Hezkuntzako bigarren hezkuntza zikloa (3-6 urte) emateko hezkuntzako itun berezi partzialak izanik, egun bi urteko haurrak hartu dituzten ikastetxe pribatuak, ba al dute Hezkuntza

Departamentuaren baimenik bi urteko haurrak hartzeko?

2) Hezkuntza Departamentuko ikuskaritza teknikoak eta eskualdeko ikuskatzaileek begiratzen al dituzte bi urtekoentzako ikasgelak?

3) Zein departamentuk, edo zeintzuk, kontrolatzen dituzte itunpeko ikastetxe pribatuak bi urteko ikasleen eskolatzeko-baldintzak, eta nork hartzen ditu bere gain egoera horrek dituen arriskuak?

Iruñean, 1998ko irailaren 8an

Foru Parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusi diren alternatibei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak desagertu berria den LH1etik heldu diren ikasleentzako aurreikusi diren alternatibei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduak xedaturikoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Egunotan beta izan dugu gazte-mordo ugari bati sortutako arazoa ezagutzeko; izan ere, LH1 erreformarekin desagertzekoa zela-eta iaz prestatutako suspendituentzako ikastaro berezian jar-

dun, LH1 ikasten aritu eta titulua lortu ondoren, orain plazarik gabe geratu baitira.

Hasiera batean, prestakuntza-ziklo berrietan sartu ahal izatekoak ziren, baina, dirudienez, DBHtik datozen ikasleen eskaera handiaren ondorioz, ez da plazarik gelditzen.

Hori guztia dela-eta, honako hau jakin nahi da:

1.- Hezkuntza Departamentuak zer nolako alternatiba eskaintzea aurreikusten duen (eta, data ikusirik, presaz) beren prestakuntzan sartzeko nahia duten gazte horiei hutsik ez egiteko.

2.- Zer jarduketa burutu dituen Hezkuntza Departamentuak arazo honi konponbidea aurkitzeko eta noizko.

3.- Ikastaro berezia egin zuten 360 ikasleentako batzuek osatzen duten talde horrek ikasten jarraitu nahi arren ezin izatea, plazarik ez egoteagatik, Hezkuntza Departamentuak eginiko zer aurreikuspenen ondorioa den. Benetan hartu zituzten kontuan ikasle horiek?

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Eugiko urtegia hustu eta gero antzeman den arrainen heriotzari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Eugiko urtegia hustu eta gero antzeman den arrainen heriotzari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako "Nueva Izquierda"ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Beste hogeita mila arrain hilik agertu dira Argan eta jada ez dakigu zenbatgarren aldiz. Ingurugiro Departamentuaren ustez, Eugiko urtegia hustea izan zen arazoa sortu zuena.

Etxauriko neurketa-estazioan egindako azterketak eta erregistraturiko detekzioa begiratuta, Iruñeko Ur Mankomunitateak adierazi du Ingurugiro Departamentuak emandako azalpena ez dela egiazkoa.

Beti ere, azken urtean hondamendiak gertatu izan dira bata bestearen ondotik, baina gaur egunera arte ez dugu izan Nafarroako Gobernu Ingurugiro Departamentua eta Nafarroako Gobernua, hala behar izanez gero, hartzen ari diren neurri eraginkorren berri.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ea Departamentuak jarraitzen duen pentsatzen arrainen heriotza horiek Eugiko urtegia husteatik gertatu direla, eta hala bada, zein neurri hartu dituen edo hartuko dituen horrelakorik berriz gerta ez dadin.

2. Zein izan diren Departamentuak atera dituen ondorioak (kasuz kasu), eta zein izan dira horrelakorik berriz ere ez gertatzeko Departamentuak hartu dituen neurriak (kasuz kasu, baita ere) Nafarroan urte honetan zehar izan diren kutsadura kasuei buruz, hain zuzen ere arrainen heriotza ekarri duten horiei buruz.

3. Ea Ingurugiro Departamentuak uste duen behar ote dituen bitartekoak edo bitarteko aski dituela gertaturikoari aurre egiteko, gure ibaietako tarte jakin batzuen kutsadura dela-eta, edo bitarteko gehiago behar dituela uste ote duen. Halakorik uste badu, zein bitarteko behar dituen.

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Buñuelgo “Santa Ana” ikastetxe publikoari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Buñuelgo “Santa Ana” ikastetxe publikoari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako “Nueva Izquierda”ko Foru Parlamentariak, Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Berriki iritzi publikoan zabaldu da Buñuelgo ama talde batek egin duen protesta eta sentitzen duten ezinegona. Grebarako deia egiteko eta beren salaketarekin komunikabideetan agertzeko dituzten arazoien artean, badaude, noski, kezkarako bidea ematen dutenak, ondotik adierazten dugun bezala: hirugarren urtea da ikasle talde batek ikastetxeko taldeak betetzeko sistemaren gorabehera argi bat –izen hori eman behar zaio, behintzat– jasan behar izaten duela (esate batera-

ko, talde bat bera da hirugarren urtez irakaslea izendatu gabe duena).

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ea Hezkuntza Departamentuak egoera eza-gutzen duen. Ama horien esanetan, joan den urtean salaketa bera aurkeztu zuten eta horren bidez exijitu ikasle taldeen hautapena txandakakoa izatea, modu horretan gertatutakoa berriz gerta ez zedin, hau da, beren seme-alabek egoera hori berriz jasan behar ez zezaten.

2. Ea Hezkuntza Departamentuak urratsen bat eman behar ote duen (halakorik bada, jakin nahi da nolako urratasak emanen diren) edo akaso uste duen arazoa Buñuelgo Santa Ana Ikastetxe Publikoak berak kpondu beharrekoa dela, irakasleen klaustroaz beste inork esku hartu gabe.

3. Uste al du Hezkuntza Departamentuak salatu-tako inguruabarrak hirugarren urtez segidan lehen hezkuntzako haur berberei gertatzea positibo-a dela haien prestakuntza eta motibaziorako?

4. Horrelako egoerak berriz gerta ez daitezten, ez bakarrik desatseginak direlako baizik eta, kez-kagarriena dena, haur horien garapen eta heziketa integrala ere kaltetzen dutelako, zein jarduketa burutu behar dira, Hezkuntza Departamentuaren iritzi?

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetza akordioari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetza akordioari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Orain gutxi, Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak lankidetza akordioa sinatu dute; horren bidez, nahi dena da aurrera eraman Nafarroako Oihan Planaren zenbait alderdi.

Nafarroako Gobernuak eta Bosques Naturales enpresak sinatutako lankidetza akordioari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Nafarroako Oihan Planaren zein alde eramanen ditu aurrera, zehazki, aipatutako akordioak? Aipatutako enpresak bete nahi dituen helburuentzat, zer inbertsio egingen dituzte bai enpresak, bai Nafarroako Gobernuak? Zer on egingen dio Nafarroako Foru Komunitateari aipatu den akordioak?

2.- Zein izan da akordioa sinatu aurretiko administrazio bidea? Izan al da elkarrizketarik aurreko enpresa horren antzeko beste enpresa, entitate edo erakunderekin? Zeintzukin? Zeintzuk izan dira arrazoiak Bosques Naturales enpresarekin kontratua sinatzeko? Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak akordio edo hitzarmenik sinatzeko beste enpresa, gobernu kanpoko erakunde edo bestelakoren batekin, oihan planaren beste alde batzuk aurrera eramateko?

3.- Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak biltzar honetara, eztabaidatu eta onesteko igorritako oihan plan proiektuari akordio hori gehitzeko? Erregelamenduaren zein bide erabiliko du, izatekotan, akordio hori oihan planari gehitzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 2an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurreko ostiralean, Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, Muniarteako presa eta zubiaren artean, apar puska zikin handiak agertu ziren, eta kiratsa ere izan zen.

Baztan-Bidasoa ibaian, Elizondon, izandako kutsaguneari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsaguneari berri?

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Departamentuak horren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Kutsaguneari arrainei eragin al zien? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 8an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ega ibaian, Andosillan, izan den kutsadurari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ega ibaian, Andosillan, izan den kutsadurari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko

Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Egun hauetan, Ega ibaian, Andosillan, koipe orbanak agertu dira, eta baita arrain hil gutxi batzuk ere.

Ega ibaian, Andosillan, izan den kutsadurari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsaguneari berri?

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Departamentuak horren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait?

Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 8an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Robo eta Arga ibaietan, Gares aldean, izan den arrain hiltzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Robo eta Arga ibaietan, Gares aldean, izan den arrain hiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Atzo, Robo ibaiak urak Arga ibaian isurtzen dituen lekuan, Garesen, milaka arrain hil agertu ziren.

Robo eta Arga ibaietan, Gares aldean, izan den arrain hiltzeari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsaguneari buruz?

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Departamentuak arrainen heriotzaren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 8an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Urantziako Udaleko dermioan Odrón ibaiaren ibilgua handitzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Urantziako Udaleko dermioan Odrón ibaiaren ibilgua handitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Iaz, euri erauntsi handi batek Odrón ibaiaren ur-goraldia eragin zuen. Goraldiaren ondorioz,

ibaitik gertuko soro landu eta etxaldetan kalte ekonomiko handiak izan ziren.

Aurreko urteetan ere gertatu izan dira horrelakoak, beraz, Urantziako Udalak Odrón ibaiaren ibilgua handitzea eskatu zuen.

Los Arcoseko Udaleko dermioan Odrón ibaiaren uharka handitzeari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola eta noiz izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako jarduketa egin beharraren berri?

2. Zer egoeratan dago jarduketa horri buruzko espedienteak? Zein departamentuk du eskumena horrelako jarduketak egiteko?

3. Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko otsailaren hasieran, Nafarroako Gobernuak Lehendakariak, zenbait kontseilarirekin batera Zaraitzu ibarreko Etxean bilera egin zuten Ibarreko Batzarrarekin eta baita ibar horretako herrietako zenbait ordezkariarekin ere.

Aipatutako bileran, Zaraitzu ibarreko ordezkariak neurri zehatzak aurkeztu zituzten, haien uste-

tan beharrezkoak, leku hori biztanlez hustutzea ekidin eta garapena bultzatzeko.

Eskaeren artean aipatu zen lizitzeko poligonoa urbanizatzea eta enpresak jar zitezkeen pizgarriak garatzea eta baita Zaraitzu ibarrean egiten diren jarduera turistikoak dirulaguntzak handitu eta mugatzea, eta Iratiko oihaneko erabilera turistikoak arautzea.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak lizitzeko poligonoaren urbanizatzaea dela-eta? Noiz hasi ziren? Zer aurre-

konturekin? Noizko amaitu ziren edo aurreikusi da amaitzea?

2.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Zaraitzu ibarrean enpresak jar daitezkeen bultzatzeko? Izan al da emaitza zehatzik? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

3.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, Zaraitzu ibarrean egiten diren jarduera turistikoak dirulaguntzak handitu eta mugatzeko, eta Iratiko oihaneko erabilera turistikoak bultzatzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuloa eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko otsailaren hasieran, Nafarroako Gobernuak Lehendakariak, zenbait kontseilarirekin batera Zaraitzu ibarreko Etxean bilera egin zuten Ibarreko Batzarrarekin eta baita ibar horretako herrietako zenbait ordezkariarekin ere.

Aipatutako bileran, Zaraitzu ibarreko ordezkariak neurri zehatzak aurkeztu zituzten, haien uste-tan beharrezkoak, leku hori biztanlez hustutzea ekidin eta garapena bultzatzeko.

Eskaeren artean zera zegoen: oihan hobekuntzak egiteko dirulaguntzak ematen jarraitzea bai oihan sektorean lanpostuak sortzeko, bai mendien antolamendua berraztertzeko; halaber, Lizardoia-ko erreserba integral eta beste eremu babestueta-ko mugapenengatik kalte-ordainak ematen jarraitzeko.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Oihan hobekuntzak egiteko dirulaguntzak ematen jarraitzeko edo horiek hobetzeko zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak? Zer aurrekonturekin? Zein udaldermian? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

2.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Zaraitzu ibarreko oihan sektorean lana sor dadin zuzpertzeko? Izan al da emaitza zehatzik? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

3.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak mendien antolamendua berraztertzeke? Zer aurrekonturekin? Zein udal dermiotan? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

4.- Aipatu bezala, Zaraitzu ibarrean, eremu babestuak edo naturguneak deklaratzegatik, zenbait toki entitatek mugatuak dituzte erabilerak.

Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, kalte-ordainak emateko, hori dela-eta? Zer aurrekonturekin? Zein udal dermiotan? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko otsailaren hasieran, Nafarroako Gobernuak Lehendakariak, zenbait kontseilarirekin batera Zaraitzu ibarreko Etxean bilera egin zuten Ibarreko Batzarrarekin eta baita ibar horretako herrietako zenbait ordezkariarekin ere.

Aipatutako bileran, Zaraitzu ibarreko ordezkariak neurri zehatzak aurkeztu zituzten, haien usteetan beharrezkoak, leku hori biztanlez hustutzea ekidin eta garapena bultzatzeko.

Eskaeren artean dirulaguntzak hobetzea zegoen, eskualde andeatua den aldetik, eta baita ere Abodi aldeko bazkalekuak aztertzea eta bestelako produktuekin ustiatzearen irabaziak handitzeko aukera.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak nekazaritza-dirulaguntzak hobetzeko Zaraitzu ibarrean, eskualde andeatua den heinean? Zer aurrekonturekin? Zenbat nekazari ukitu ditu? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

2.- Zaraitzu ibarreko Batzarrak eskatutakoari jarraituz Abodiko bazkalekuak aztertu ondoren, zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak? Zer aurrekontu esleitu zaie jarduketa horiei? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

3.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, bestelako produktuekin ustiatzearen irabaziak handitzeko azterketaren ondorio? Zein udal dermiotan? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuloa eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997ko otsailaren hasieran, Nafarroako Gobernuak Lehendakariak, zenbait kontseilarirekin batera Zaraitzu ibarreko Etxean bilera egin zuten ibarreko Batzarrarekin eta baita ibar horretako herrietako zenbait ordezkariarekin ere.

Aipatutako bileran, Zaraitzu ibarreko ordezkariak neurri zehatzak aurkeztu zituzten, haien usteetan beharrezkoak, leku hori biztanlez hustutzea ekidin eta garapena bultzatzeko.

Eskaeren artean zera zegoen: Gorza eta Zaraitzu-Espartza arteko errepide zatia hobetzea, eta baita Eiaurrietako zeharbidea ere, Auritz-Itzaltzu eta Espartza-Ezkaroze errepideak egokitzea,

eta zenbait zaintze jarduketa egitea ere bai; horretaz gainera, telebisioko kate pribatuak ongi ikustea ahalbidetzea eta telefono mugikorra erabili ahal izateko beharrezkoa den hedapena ere izatea.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Zaraitzu ibarrean eginiko jarduketei buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Aipatu diren lanak egiteko (Gorza eta Zaraitzu-Espartza arteko errepide zatia hobetu, eta baita Eiaurrietako zeharbidea ere, Auritz-Itzaltzu eta Espartza-Ezkaroze errepideak egokitu, eta zenbait zaintze jarduketa egin) zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak? Zer aurrekonturekin? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

2.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Zaraitzu ibarrean telebisioko kate pribatuak ongi ikustea ahalbidetzeko? Izan al da emaitza zehatzik? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

3.- Zer jarduketa egin ditu edo aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, Zaraitzu ibarrean telefono mugikorra erabili ahal izateko beharrezkoa den hedapena izateko? Ba al du Nafarroako Gobernuak jarduketa gehiago egiteko asmorik helburu horrekin?

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Errioxan, Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Errioxan, Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulok eta ondokoak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Urte hasieran, Errioxako Komunitateko Gobernuak Logroño-Agoncilloko aireportua eraikitzeke proiektuaren prestaketa esleitu zuen. Hirugarren mailako aireportu horretarako 1.500 milioiko inbertsioa aurreikusi zen. Hasiara batean, bidaiarientzat terminal bat eraikitzea aurreikusi da, eta ez da baztertu, etorkizunean merkantzia trafikorako erabiliko den beste bat eraikitzea.

Jarduketa horri ekiteko beharrezkoa zen auzoko erkidegoaren eta Sustapen Ministerioaren arteko akordioa, azken horrek hartuko baitu bere gain azpiegitura horren finantziazioa; gainera, Defentsa Ministerioaren baimena ere behar da, orain dagoen aerodromo militarri aipatutako erabilera eman ahal izateko.

Aireportu hori eraikitzea onuragarria izan daiteke hor gertu dauden gure komunitateko herrientzat, eta gainera egia bihurtu daiteke Mendavia eta Errioxa lotzea Ebro ibaia zeharkatuko lukeen zubiaren bidez. Horrek eskualdeko komunikazioak hobetuko lituzke eta, gainera, Autopista Vasco-Aragonesara heltzeko bidea erraztuko luke.

Errioxan, Logroño-Agoncillo aireportua eraikitzeak Nafarroan izanen duen eraginari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Ari al da jarraitzen Nafarroako Gobernuak Logroño-Agoncillo aireportua egiteko eraikitze-proiektuaren izapideak? Zein fasetan dago gaur egun? Noizko aurreikusi da jarriko dela martxan?

2.- Aireportu hori eraikitzea onuragarria dela Nafarroako Gobernuak uste al du Errioxarekin muga egiten duten herrientzat? Izan al du kontakturik edo egin al du bilerarik Errioxako Gobernuarekin gai horri buruz aritzeko? Zein egunetan? Zein ondorio atera ziren?

3.- Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak jarduketaren bat hastea Errioxako Gobernuarekin Mendavia eta aipatutako komunitate hori lotuko dituen zubia eraikitzeke? Nafarroako Gobernuak uste al du komenigarria dela zubi hori eraikitzea Logroño-Agoncillo aireportua martxan jartzearekin batera?

4.- Izan al du bileraren bat Nafarroako Gobernuak Errioxatik gertu dauden herriekin aipatutako aireportuaz eta esan den zubi horretaz aritzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Beran, Ibardin eta Zia erreketan arrainak hiltzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Beran, Ibardin eta Zia erreketan arrainak hiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurreko asteartean, Ibardin errekan, erreka horrek Zia errekearekin bat egiten duen lekuan, Berako dermioan, zenbait amuarrain hil agertu ziren. Gaur, oraindik, ez dakigu kutsagunearen

zergatia, edo zerk eragin zuen amuarrain hiltze hori.

Beran, Ibardin eta Zia erreketan arrainak hiltzeari buruz, ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1. Zer jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak aipatu den gertakariaren berri izan zuenetik? Nola izan zuen Foru Komunitateko Administrazioak aipatutako kutsagunearen berri?

2. Ba al daki Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu, eta Etxebizitza Departamentuak arrainen heriotzaren zergatia? Isuriak izan al dira edo beste zerbait? Zein lekutan izan zen zehazki kutsagunea? Zer ikerketa egin ditu Nafarroako Gobernuak kutsaguneari buruz?

3. Ondorio larriak eragin dituela uste al du Nafarroako Gobernuak? Zenbat arraini eragin zion kutsaguneari? Zein da, orain, ibaiaren egoera?

4. Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak horrelakoak berriz ere ez gertatzeko?

Iruñean, 1998ko irailaren 11n

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nagusientzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektuaren txostenean Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiak izan duen eskuhartzeari buruzko galdera

M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 15ean egindako bilkuran, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andreak nagusientzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektuaren txostenean Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiak izan duen eskuhartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1998ko irailaren 16an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

María Isabel Arboniés Bermejok, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Hezkuntza gaietarako Bozeramaileak, Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

1997ko ekainean, Nafarroako Parlamentuak Plan Gerontologikoa onetsi zuen Nafarroan nagusiei zuzendutako 2000 urtera arteko jarduketak garatzeko.

Plan Gerontologikoa hirugarren adinekoentzako laguntza-baliabide garrantzitsuen abian jartzea antolatzen duen tresna da. Baliabide horien artean laguntzadun plazak eta laguntzarik gabeko pla-

zak izanen dituzten "hirugarren adinekoentzako" egoitzak daude.

Ekimen publikoak uko egin dio nagusientzako baliabideak sustatzeari. Nagusientzako egoitza berrien abian jartzea eta kudeaketa, funtsean, irabazteko asmoa duen ekimen pribatuaren esku dago. Horri esker egoitza berriak eraikiko dira Iruñean eta Iruñerrian, izan ere Plan Gerontologikoa-aren arabera 500 toki behar ziren lekuan.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia Gizarte Ongizateko Zuzendari Nagusiaren esku-sartzeari buruz, izan ere, idazki ofizial baten bidez bidali baitio Udalari sozietate pribatu jakin baten aldeko txostena, hirugarren adinekoentzako egoitza bat eraiki eta kudeatzeko proiektua dela eta?

2. Goi kargu horrek aipatu enpresaren aldeko gomendioa egin zuen, gomendatutako enpresa pribatuaren sozietate nagusiaren Administrazio Kontseiluko kontseilari eta lehendakariorde izanda ere. Nafarroako Gobernuak zer irizten dio horri?

3. Zein neurri hartu behar ditu Nafarroako Gobernuak Gobernuko goi kargu batek aldi berean eginkizun publikoetan eta interes pribatuko kudeaketa lanetan izan duen ustezko partehartze horri buruz, gure iritziz goi karguen bateraezintasunei buruzko Foru Legea urratzen baitu?

Iruñean, 1998ko irailaren 14an

Foru Parlamentaria: María Isabel Arboniés Bermejo

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.900 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---